



# TXIRRITXOLA

4. ZENBAKIA

1992.EKO URRIA

BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

**Eskola umeak sasiz sasi asko jan eta gutxi ikasi  
Nagusi askoren astoa goseak hil**

## Bekorrota

Baseri honeri buruz doguzan daturik zaharrenak 1796koak dira. Sasoi haretan «Marques de Montana» zeritzona zan, bai Bekorrota, bai beste baseri askoren jabe (Goikolea, Kurtzikerre, Olatxo, Arza, Ormaza,... etabar).

Orain gitxi arte errota honen jabe izan zana Bruno Bustamante Bidaurraga (G. B.), bere emazte Josefina Ugalde Ibinaga eta honen ahizta Frantziskak emon eusten Bekorrotzaz idazten dautsedan barri, orain dala urte asko.

Antza denez, 1850. urtean, Josefinaren biraititak, Justo Ugaldek, Marques del Duero izandakori erosi eutsen.

Errota izan baino lehen, burdin ola bat izan zan; ondoan dagoan baserriak be, Bengolea dau izena. Barri emoleek txikitan, pisu handiko harriak aurkitzen ebezan inguruetan, burdinezkoak zirelako; aldanparearen hormak be, burdinaren kaldoagaz egindakoak ei dira.

Sasoi batean errota honek lau harri ebazan, garia eraiten zenean; heurak ez dabe ia garia ezagutu. Artoa zabaldu zenetik hiru harrigaz gelditu zan. Ordurik artoa baino ez zan joten, gehiena neguan, gitxi gora behera hiru hanega egunean, kortako abereentzat



bazan. Mahairako uruna egiteko denbora gehiago behar zan, finagoa izateko.

Garia jotek harri zuria behar da. Artoarentzako aldiz, harri grisak izaten dira egokienak; artoa eta garagarra joteko, Jata menditik ekarririko harri grisa



Elkarrizketa*Jose Mari Ugalde (Ariakoa)*

**Galdera:** Jose Mari, beste batzuen menpe langile izatetik zeure kontura lan egitea granjetan erabaki dozu. Konta ezazu pixkat pauso hori. Zergaitik?

**Erantzuna:** Enpresa zarratu ezkerro, langabezian ezin bizi. Bakion, oilo granjak, urte askotan, lanpostu bakarra izan direnez, aukera euki nuen granja batekin jarreitzeko eta halan nabil

**G.:** Badirudi hasieran kooperatiba izan zen Bakion granja-industri hau apurtu egin dela. Zer arazo egon dela horretarako uste duzu?

**E.:** Bai, hogeitabost urte gutxi gora behera, izango dira, kooperatiba hori sortu zala, eta orain dela bi urte ta erdi, guztiz apurtu da. Kooperatiba hori, ondo muntatuta zegoen, baita ere hasieran funtzionatu. Horren apurtzeari buruz, ez dakit zer gertatu dan. Hamar hamabost urteetan nahiko ondo funtzionatu zuen; gerostik beherantza joan zan. Urte txarrak suertatu diral uste dot. Inbertsio asko ere egin ziren denbora gutxian eta bankuak ez dabe parkatzen.

**G.:** Halan edo holan, dena dela granja bakoitzak bere aldetik aurrera irauten du. Arazak gutxitu egiten dira era honetara ala?

**E.:** Bai, granja bakoitzak, bere aldetik, aurrera irauten du, baina granjak, gutxitzen ari dira.


Arazoak handiagoak dira, baina egiten dena, norberak egindakoa da, ondo edo txarto. Kooperatiba batetan eritzi asko daude.

**G.:** Orduan, zer uste duzu, elkar-lanak balio duela ala ez beste arlo batzuetan aplikatzeko?

**E.:** Teoriz, elkar-lanak, asko balio du. Lau begik, bik baino gehiago ikusten dabe.

**G.:** Beste era batera esanda, ez gara kapazak herriko zenbat arazo edo langabeziari elkarrekiko erantzun bat emateko?

**E.:** Ez dakit ba, kapazak garen. Nahiko norberakoiak gara eta ez jaku gustatzen geure



geuzek inori azaltzea. Ahal badogu zapaldu, zapaldu egingo dogu.

**G.:** Badago instituzioen laguntzarik zuen entpresa txiki hauetarako?

**E.:** Oilo ekintzetarako, Bizkaian elkarte bat dago. Instituzioek, laguntza guztiak elkarte horren bidez ematen dabez

**G.:** Eta hondakinen arazoari ikusten diozu konponbiderik? Nola?

**E.:** Elkarte eta Bakioko udala ahalegintzen ari dira. Ez da erraza eta halan da guzti ere, kaka lekuan, kakatza?

**G.:** Eta azkenez pozik zaude zeure lanarekin, aldatuko zenuke edozer?

**E.:** Granjako lana gustatzen zait, baina kalean saltzea saila da, eta preparazio gabe, txarto xamar ibiltzen gara. Lan hoberik baneko, laster aldatuko nuke.



# Barriak

# Oharrak

# Flashak

Alaitasuna pilota taldeak bi ekintza antolatu ditu Urrian hasteko. Umeentzat (eta kurtso guztirako) esku pelota eta palako ikastaroak eratu ditu. Beste alde batetik, Urri erditik aurrera herriko narruzko pala txapelketa ospatuko da. Ekintza hauetaz informazio gehiago nahi dauenak ohizko iturrietara jo beza.

.....

Aurten Bakioko eskolan 92 ikasle eta 8 irakasle daude. Klaseak irailaren 8an hasi ziren. Kurtso honetan, urtero bezala, psikologoaren lguntza izango dugu.

.....

Eskolatik beste ohartzo hau ere badatorkigu: eskolako guraso edo irakasleen deietara komenigarria da etortzea, arazoak danonak dira eta.

.....

Irailak 8an Gaizka San Pedro gure artetik joan jakun. Bakioko Abesbatzarekin hainbat lan eta ordu egin eban gizon honen hutsunea betetzea ez da erraza izango. Goian Bego.

.....

Herrian zehar beste hau batu dugu: Urtero egiten dogun bezala herriko jendearengana jotzen dugu kide berriak aurkitu nahian.

Abesbatza indartzeko jende berria behar dugu. Saioak ostiralero egiten ditugu eskola zaharrean arratsaldeko 8retan. Etor zaitez. Bestalde jakin dugunez, Bakioko Abesbatzak urriak 24an Ustaritzen kantu saio bat eskeniko du.


.....

Joan-Etorri mendi taldeak irailak 26an egin barria du Bakioko bira. Ohizko dan bezela, partaideek, ibiliaz gainera, nahiko barre eta txanta egin eben.

.....

Gure-Etxeak Elkarteko partaideak urriak 3an Aiegi-Lizarrara bidai bat egiteo dira. Bazkaria Iratxe hotelean izan eben.

.....



## Txistea

Gizon batek, arrantzatik itzultzen zenak, esaten dio beste bati:


- Hamasei kiloko bixigua harrapatu dut!

Eta esaten dio besteak:

- Ba niri bizikleta errepara jausi ostean oraindik argiak piztuta jarraitzen zuen.

- Ezinezko da hori! jar gaitezen ados.


- Bale! Zuk kiloak kentzen dizkiozu bixiguari eta nik argia amatatzen dut



T	R	Z	E	Z	E	N	A	C	N
L	X	V	Y	B	J	K	L	X	T
E	T	A	K	G	F	D	H	M	X
H	H	S	K	A	T	U	A	Z	E
O	J	L	L	U	S	V	N	O	R
I	P	Q	G	K	R	U	S	Z	R
A	S	K	J	Ñ	O	R	U	P	I
V	I	A	H	A	T	E	A	B	A
Z	E	B	J	K	L	Ñ	O	P	R
W	S	A	G	U	A	T	I	Z	M

## ZAZPI ANIMALIAK

## Hiztegia



erremolatxa



patata




berakatza



azenarioa



frantsesporrua edo zainzuria



endibia



errabanoa edo errefaua



porrua



kipulea